



Kolaborazioa: Gora Bihotzak Elkarteak

Kaixo Lagunak:

Gora Bihotzak elkarteak, eta Bere Pailazoak diren Antxo ta PAntxak emanaldia zeukaten Bagatzako jaietan emateko, urriaren 11an hain zuzen ere. Bertan eta estreinatu ziren plazan aurtengoa hirugarren lana izango zuten. Euskal Herriko Amammei omenalditxo bat. Sagargole Taldeak grabatuko du musika, eta Bordillo Aplastao ekimenarekin izango zuen lankidetzak. Era berean grabatuko duten abestietan herriko hainbat neskek hartuko zuten parte. Guztira 20 bat persona.

Emanaldia negoziatua eta itxita zegoela, Antxo ta Pantxak, unilateralki, bertan behera utzi du emanaldia. Arrazoiak Jai batzordeak bultzatzen duen ereduarekin bat ez etortzea. Jaiak Herriko eta herriarentzako izan behar dute, eta aurrean hartutako erabaki batzuk ez datoz bat elkarteak bultzatzen dituen helburuarekin. Beraz, eta gure koherentzia mantenduz. Ez dugu Bagatzako Jaietan parte hartuko.

Lan berria astebete geroago aurkeztuko da Sestaoko Txirbilenea Kulturgunean.

Enpresen interesak, alde batera uzten dituzuen eta herritarrei behar duten lekua ematen diezuen, zuekin izango gaituzue berriro, momentuz min handiarekin bada ere, ez dugu Bagatzako jaietan parte hartuko. Bitartean disfrutatu bizitza... eta GORA BIHOTZAK!